

2007KO ABENDUAREN 5eko EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: ILUNTZEKO 7:05
AMAIERA ORDUA: ILUNTZEKO 8.00

BERTARATUAK: Jesús Maria Fullaondo, Alkatea, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga, Leixuri Arrizabalaga, Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka Iñaki Aginaga eta Gotzon Arrieta.

Udaletxeko batzar aretoan, osoko bilkura bildu da, ez ohiko osoko bilkuran, aipatutako zinegotziak bertaratuta. Bilkura hasi ondoren, idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar den gutxienerako kopurua izatea ikusi ondoren, gai zerrendan agertutako gaiei buruz hitz egin dute:

1. Manufacturas Electricas S.A.ren (MESA) Hitzarmenaren onarpena eta Alkateari, Jesús Maria Fullaondo, sinatzeko baimena ematea.
2. Gatikako Herri Sustapenak enpresako Presidenteak sinatuko den erosteko aukeraren jakinaraztea.

Jose María Markaidak esan du Hitzarmenaren kontra daudela. Erosteko aukera dagokionez, guztiz alde daudela esan du, dena den idatziz ikusi nahi duela. Erosteko aukerari buruz esan du jakinarazi behar diola Gatikako Herri

Sustapenak enpresari. Era berean, jakin nahi dute hirigintzari buruzko araudi osoa aldatu beharrezkoa den edo modifikazio partziala egin ahal den. Gainera, ezinbestekoa deritzo zer planifikazioa duen jakiteari. Horregatik uste du azeratu egin behar dela.

Jesús María Fullaondok esan du Hitzarmena eta erosteko aukera batera doazela. Gainera, ezin dela atzeratu esan du hitzarmena Mungiarekin batera sinatu behar baita eta erabaki behar da onartu ala ez. Araudiari buruz, esan du beharrezkoa dela aldaketa osoa egitea. Planifikazioari dagokionez, arteko informazio batzordean azaldu zela esan du.

Jose María Markaidak uste du atzera daitekeela.

Gotzon Arrieta bat dator erosteko aukerarekin.

Jose Maria Markaidak jakin nahi du zelan aurkituko den behar den dirua, eta dauden aukerak ezagutu nahi dutela.

Iñaki Aginagak esan du hitzarmenaren alde dagoela eta erosteko aukerarekin batera badoa hobe deritzola.

ANVkoek zalantza batzuk dituzte.:

- Hirigintzako araua gustiz aldatu behar den edo baliteke modifikazioa egitea.

Beraien ustez, araua berria atera behar bada, eroskerko aukerak ez du ezertarako balioko ez baita lortuko hori egitea urte bat barru.

- Jakin gura dute zer planifikazio dagoen.

Beraiek esan dute aukerak jakin behar dituztela. Hori jakingo balute, ados egongo lirateke. Jesús María Fullaondok esan du aukerak badakizkitela.

- Uste dute Administrazio kontseiluari baita akziodunen batzarrari ere informazioa eman behar zaiela.
- UEMA udala izanda, eroskeko aukera euskeraz egon behar da.
- “Gatikako Herri Sustapenak” enpresak aurrera eraman badu erosteko aukera, ikertu behar da zelan egin.

Hori guztia kontuan hartuta, atzeratu nahi dute.

Gotzon Arrieta atzeratzearekin alde dagoela dio eta aukerak edo asmoak azaldu behar direla.

Jesús Maria Fullaondok esan du hilabete bat barru berdin jarraituko dutela.

EAE-ANVkoek eta EAkoek atzeratzearen alde bozkatu dute. EAJ-PNV koak ez datoz bat. Gehiengo soilak beharrezkoa denez, gaia atzeratu da hurrengo osoko bilkura egin arte.

Arestian esanda dagoen moduan, 20.00etan osoko bilkura amaitu da.

Jesús M. Fullaondo Gatikako Alkatea	Chiara Camarón Gatikako behin-behineko idazkari- kontuhartzailea
--	--